


## LASARTE-ORIAN

Lasarte-Oriako jaiak erdira iritsiko dira gaur. Atzo haurrak izan ziren protagonista eta gaueko antzerki saio eta dantzaldien ondotik jaietako egun nagusira pasa dira. Denetarik, aukeran daude gaur jai ekitaldiak, baina horien artean protagonismo berezia hartu nahi dute herriko erretiratuek.



Erretiratuen koadrilak herriko kale nagusietan ibiliko dira bihar goitik behera. CARLOS VILLAGRAN

## Jaia erretiratuena da

KOLDO GOITIA / LASARTE

Herriko erretiratuak aurtengo jaietan inor baino gehiago mugituko dira eta ez direla esaten den bezain zaharrak erakusteko prest daude. Horretarako urte osoan egin dituzten ekin-tzen selekzioa aurkeztuko dute herriko festetan. Denetik izango dute herriko aiton-amonek: txapelketak, bazkariak, gimnasia saioak...

Ostiralean, arratsaldeko bostetan, toka txapelketa antolatuta dago bai erretiratu bai pentsionistentzat, eta denek izango dute bere trebezia erakusteko aukera. Irabazitako sariak arratsaldeko zazpietan banatuko dira erretiratuen etxean egingo den festan. Joan nahi duten guztiak konbidatuta daude festa honetara. Bertan Zinkunegi akordeoijolea izango da. Pertsonaia hau guztiei ezaguna egingo zaie erretiratuen irteeretan musika jotzeko arduraduna bait da.

Larunbatean, eguerdiko hamabietan erretiratuen etxeko terrazan 102 gimnasta arituko dira urte osoan egindako saioen

Ehun eta bi gimnasta edadetu arituko dira eguerdiko hamabietan netxeko terraza urte osoan egindako saioen emaitza erakutsi nahian.

emaitza erakutsi nahian. Lasarte-Oriako zahar-rrak gero eta osasuntsuago daude eta astean hirutan gimnasia egiten dute.

Egun berean, arratsaldeko zazpietan Arantzazuko Amabirjinaren parro- kian musika eta abesti herrikoiak entzuteko aukera izango dute hara inguratzen diren guztiak. Bertan Lasarte-Oriako hari orkestrak eta jubilatuen abesbatzak parte hartuko dute Hilario Ruizen zuzendaritzapean.

Igandean erretiratuen koadrilak herriko kale nagusietan ibiliko dira goitik behera. Ordu bietan bazkaria izango da erretiratuen etxean, koadrilak bere ibilbidea bukatutakoan bertan biltzeko.

Bukatzeko, arratsaldeko zazpietan mikrofono librea izango da erretiratuen etxean, bertara parte hartu nahi duten guztiak joateko. Mikrofono librea abestu, poesiak esan edota txisteak konta daitezke eta alor guztietan sariak izango dira irabazleentzat.

### Larunbat handia

- 10.30etan Herri Meza San Pedro parro- kian.
- 11.00etan trikitila- rien alardea.
- 11.30etan Javier Mitxelenari ome- naldia udaletxean.
- 11.45etan hamai- ketakoa udaletxeko arkupeetan.
- 12.30etan herri ki- rolak hilerriko ze- laiean.
- 17.30etan trikiti- la- rien irteera Okendo plazatik.
- 18.00etan sueto txapelketa Okendo plazan.
- 23.00etan folklore jaialdia polikirolde- gian.

### 'Beteluko balnearioko mirakulua'

Atzo Michelingo kirol- degian Lasarte-Oriako in- stitutuko ikasleek 'Beteluko balnearioko mirakulua' antzezlan taularatu zuten. Urtebetez prestatutako lana zen Sergio Gonzalezen zu- zendaritzapean aurkeztu zutena. Zortzi ikaslek an- tzeztu zituzten obrako beste horrenbeste protagonista: Gigoloa, Batista, Karmen- txu Ezpainzabaleta, kultur ministroa, eta abar.

Obra Beteluko bainue- txean kokatzen da eta ber- tan zenbait aktore biltzen dira kultur ministroa men- dekatzeko, honek dirula- guntza ukatu bait die. An- tzezlan arintasunagatik hautatu dute ikasleek eta akzioz beteriko obra era- man dute taulara. Lana

Branka antzerki taldeak idatzitakoa da eta ordube- teko iraupena du.

Azken urte hauetan ba- txilergoko ikasleek antzer- kia egiteko aukera dute, asignatura hautakorra bait da irakaskuntza programa berrietan. Ez da hau taula- ratu duten lehen obra, ikas- tolaren hogeitabostgaren urtemugan 'Uste dinat' obra antzeztu zuten eta bes- te zenbait lan ere taularatu dituzte: 'Aqui no paga na- die' eta 'Eloise esta debajo de un almendro'. Esker- tzeak dira gazteek anto- latu dituzten ekitaldiak, bai institutuan bertan bai ikas- tetxetatik kanpo, Irrintzi eta Matxinsalto atsedean aldiko taldeek egin duten bezala haurren egunean.

### OSTATU BERRI TABERNA

Giro jatorra eta alai  
Geltoki kalea 7, Tfnoa: 36 27 03  
LASARTE-ORIA

### BERASATEGI Kafe denda

Edateko kaferik onena  
TXURRUKA 1, LASARTE ORIA Tfnoa.: 361316



TXARTEL  
TXOKO.

JATETXEA TEL.: 370192 LASARTE-ORIA

UDAL EUSKALTEGIA

Ospa itzazue San  
Pedro jai alai batzuk  
euskal giroan.

### Kisket

ARROPA DENDA  
Kale Nagusia Bis, 18  
LASARTE-ORIA  
Tfnoa.: 365672

### NAHIA

PAPERTEGI  
Urdaneta, 4 Tfnoa.: 362458  
LASARTE

### Echarri

ARGAZKI BILKIAK ORDUBETEAN ERREBELATZEN DITUGU

J uan de Urbieta Etorbidea, 8  
Tfnoa.: 55 29 39 HERNANI

Elizondo Plaza, 2 atzekaldea  
Tfnoa.: 59 41 48 ANDOAIN